

## Balore proposamena

Sare sozial honen ekarpena **erosotasuna** eskaintzea da herriz edo herrialdez aldatuko den jendearentzako. Ez delako erraza **kontaktuak**, **lagunak** eta hainbat gauza berriztea ezagutzen ez duzun hiri edo herri berri batean.

Gainera ziurtatzen dugu datu pertsonalen **pribazitatea** eta **konfiantzazko** aplikazioa izango dela, hau da, ez dira datu pertsonalak inondik inora aplikaziotik aterako.

**Lokalizazioaren** erabilpena aukerazkoa izango da. Deskargatzen duzunean automatikoki edo manualki egiteko aukera emango du. **Automatikoki** aukeratzen baduzu, aplikazioa erabiltzen duzunean aktibatuko da. **Manualki** egiten baduzu aldiz, hasieran idatzi behar da herria edo hiriaren izena eta gordeta geratuko da. Eta aldaketaren bat egin behar bada aplikazioaren 'Ajustes' en aldatzeko aukera emango dizu.

Harremantzeko modu erraza eta eroso izateaz gain, **dohainik** izango da.

Beste sare sozialetatik **ezberdintzen** da. Sare sozial honekin jende guztiak helburu berdinak izango dituztelako:

- Harremantzea
- Lana bilatu
- Elkar-laguntzea elkarbizitza erosoago bat izateko.
  - *Apartamentu bat edo logela bat aurkitzeko prezio onean. Honek abantail handia ekar ditzake bertan bizi diren pertsonentzat ere. Haien etxeetan erabiltzen ez dituzten atal batzuk alokatzean, dirua lortu ahal izango dutelako.*

Beste sare sozial gehienek helburuak honako hauek dira:

- Harremantzea.
- Iritzia ematea hainbat gaien inguruan.
- Beste batzuen irudiak ikustea.

Honekin ondoriozta dezakegu modu argi batean, gure sare sozialaren erabiltzaileek zerbait **jasoko** dutela bueltan, eta guztion bizitza hobetzeko balioko duela. Gainera erabiltzaile guztien helburua berdina da kasu honetan.

Modu formal batean erabiliko da, kontu serioetarako erabiliko delako;  
etxebizitza lortzeko, lana aurkizeko...